

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 117/2022 Erabakia, martxoaren 8koa. Onestea Arabako enpresa txiki eta ertainen nazioartekotzean enpresen arteko lankidetzaren sustatzeko 2022rako laguntzen deialdia (ALAVA InterKOOP)**

Gure enpresak nazioartekotzea ez da gertaera berria haietako askorentzat, baina jarduera komenigarria izatetik jarduera beharrezkoa izatera igaro da geroz eta enpresa gehiagorentzat, ekonomia globalak sorturiko aldaketei erantzuteko.

Arabako enpresei nazioartekotzen laguntzeari lotuta, Arabako Foru Aldundiak Euskal nazioartekotze-politika publikoak koordinatzen parte hartzen du Basque Trade and Investment (AVI-BTI) Nazioartekotzearen Euskal Agentziarekin eta beste bi Foru Aldundiekin; izan ere, horietan erakunde arteko ekintzak diseinatu eta koordinatzen dira, gure enpresek nazioarteko merkatuetan agerpen handiagoa izan dezaten eta barrurago sar daitezten. Halaber, Arabako Foru Aldundiak Arabako enpresei nazioarteko bihurtzen laguntzeko eta aholku emateko jarduerak finantzatzen ditu, Arabako Merkataritza eta Industria Ganberaren bidez.

Gauzak horrela, Arabako Foru Aldundiak, 2015ean, laguntza lerro hau abiarazi zuen, konpromisoa hartuz hemen bertatik Arabako enpresei laguntzeko XXI. mendeak eta gizarte geroz eta globalizatuago batek dakartzan desafio, erronka eta aukerei aurre egiten.

Laguntza lerro horren xedea da enpresen lehiakortasuna sustatzea, tokiko enpresak nazioartekotzearen eta lankidetzaren alde jardunez, kanpoko merkatuetara jo dezaten eta beste herrialde batzuetako enpresek harreman ekonomikoak izan ditzaten; bestalde, agerian jartzen du nola komeni den enpresen arteko lankidetzarako estrategiak eratzea, zeren uste baitu emaitza hobea eman dezaketela bakarkako ekimenek baino.

Osagarri gisa, bakarkako nazioartekotze proiektuei laguntzeko aukera ere jaso da, ETE bakarrak bere gain hartutako proiektuei, baldin eta haien izaera eta kalitatea kontuan izanik egokitzen jotzen bada.

Horiek horrela, lortu nahi dena da, hein batean, baliabide gutxirekin bada ere, eta beste erakunde publiko batzuek arlo horretan daramatzaten gainerako jardueren osagarri, erantzutea enpresek nazioartekotzeko prozesuetan topatzen dituzten arazo nagusietako batzuei, eta are eta gehiago ETE-en kasuan, zeren, oro har, giza baliabide eta baliabide material gutxi edukitzen baitituzte, eta ezagupen gutxi nazioarteko merkatuetara gerturatzeko orduan arrakasta ekartzen duten baldintza eta eskakizunei buruz, edo beharrezkoak diren finantza baliabideak eskuratzeko zailtasuna.

Alde horretatik, egokitzen jotzen da enpresen arteko lankidetzarako tresnak erabiltzea, hala nola, trakzio erakundeak, zeinetan irabazteko xederik gabeko erakundeak eta nazioartekotutako bertako enpresak elkartzen baitira, ETE-ei nazioarteko bihurtzen laguntzeko helburuan, hain zuzen ere, ETEak, baliabide nahikorik izan ez eta lankidetzaren proiektuetan elkartzen baitira. Izan ere, figura horretan enpresa txiki zein handiak aritzen dira elkarlanean, eta sinergiak sortzen dira eta onura jasotzen dute alderdi guztiek. Gainera, ETE-en nazioartekotze prozesuetan izan daitezkeen era guztietako arriskuak murrizten dira. Enpresen arteko lankidetzaren erakusgarri argia da.

Programak diruz laguntzen du Arabako enpresak nazioartekotzera bideratutako diruz lagungarri diren egintzen sorta zabala, eta hainbat gastu estaltzen ditu, hala nola kanpo merkatuak hobeto ezagutzeko profesionalen gastuak eta proiektuak arrakasta izan dezan garrantzitsu izan daitezkeen hainbat eta hainbat alderdiren gaineko kartarako aholkularitzarenak, eta era berean, erakundeetako bertako langileen gastuak estaltzen ditu.

Horiek horrela, erabaki honen bidez aginduzko deialdia egiten da gure enpresen nazioartekotzea sustatzeko laguntzak emateko 2022an, batez ere eta bereziki enpresen arteko lankidetzaren proiektuetan, betiere Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bitartez onetsitako oinarri arautzaileen esparruan, hartara ahalik eta zabalkunderik handiena ematearren eta behar bezala betetzearen publikotasun, lehia, objektibotasun eta berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioak.

Horregatik, lehen diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatu eta, titularra gaixorik dagoenez, Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko jarduneko diputatuaren proposamenez, diputatu nagusiaren azaroaren 23ko 346/2021 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau:

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespina ematea Arabako enpresa txiki eta ertainen nazioartekotzean enpresen arteko lankidetzaren sustatzeko (ARABA InterKOOP) 2022rako laguntzen deialdi publikoari, zeina erabaki honen eranskin gisa baitoa.

Bigarrena. Honako hauek arautuko dute deialdi hau: norgehiagoka bidez ematen diren dirulaguntzak arautzen dituzten oinarriek, zeinak Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuak onetsi baititu, eta erabaki honen eranskinean ezarritakoak.

Hirugarrena. Erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira:

– 15101. G/433152/47900152 partida, 2022 ekitaldirako 150.000,00 euroz hornitua eta 2023 ekitaldirako 150.000,00 euroz hornitua (Enpresak); zorpekin erreferentziak 105.606/000 eta 105.22/000.

– 15101. G/433152/48100178 partida, 2022 ekitaldirako 120.000,00 euroz hornitua eta 2023 ekitaldirako 120.000,00 euroz hornitua (Irabazteko xederik gabeko erakundeak); zorpekin erreferentziak: 105.607/000 eta 105.23/000.

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileen 7.2. oinarria betez, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, Balioespen Batzordeak hala proposatuta. Horretarako, ebazpena emango du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

Deialdiaren funtzionamendu egokia bermatzeko, gehieneko zenbateko osoaren ehuneko 30erainoko kopuru gehigarria ezarri da, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauko 21.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Laugarrena. Ebazpen honen bitartez administrazio bidea bukatuko da eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin bat eginez aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Foru Gobernu Kontseiluan ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita hilabeteko epean, edo zuzenean aurkaratu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita bi hilabeteko epean, eskumenak dituen jurisdikzioan.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 8a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Jarduneko Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko diputatua*

**E. D. ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria*

**JAVIER HERNANDO GARCÍA**

## ERANSKINA

### DEIALDIA, ARABAKO ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEN NAZIOARTEKOTZE PROZESUETAN LANKIDETZA SUSTATZEKO 2022RAKO LAGUNTZENA (ARABA InterKOOP-22)

#### 1. artikulua. Xedea

Deialdi honen xedea da laguntza ematea Arabako enpresa txiki eta ertainen nazioartekotze prozesuetan lankidetzaz sustatzeko proiektu eta/edo ekintzak egiteko, bai eta Arabako enpresek lankidetzan jardun dezaten ere, kanpora batera irten daitezen. Horretarako, dirulaguntzak emango dira, norgehiagoka bidez.

Osarri gisa, ETE bakarraren bakarkako nazioartekotze proiektuetarako ere eman daiteke laguntza, baldin eta proiektuaren izaerak eta kalitateak hala egitea justifikatzen badute.

#### 2. artikulua. Aurrekontu partida eta gehieneko zenbateko osoa

2.1. Erabaki honen bidez araututako dirulaguntzak Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuko gastuen aurrekontu partida hauen kontura ordainduko dira:

– 15101. G/433152/47900152 partida, 2022 ekitaldirako 150.000,00 euroz hornitua eta 2023 ekitaldirako 150.000,00 euroz hornitua (Enpresak).

– 15101. G/433152/48100178 partida, 2022 ekitaldirako 120.0000,00 euroz hornitua eta 2023 ekitaldirako 120.000,00 euroz hornitua (Irabazteko xederik gabeko erakundeak).

2.2. Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileen 7.2. oinarria betez, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, Balioespen Batzordeak hala proposatuta. Horretarako, ebazpena emango du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

2.3. Deialdiaren funtzionamendu egokia bermatzeko, gehieneko zenbateko osoaren ehuneko 30erainoko kopuru gehigarria ezarri da, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauko 21.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

#### 3. artikulua. Erakunde onuradunak

3.1. Honako hauek eskura ditzakete erabaki honetan jasotzen diren onurak:

a) Sozietate egoitza eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan duten enpresa txiki eta ertainek (ETE), beren osaera juridikoa edozein dela ere, ekoizpen edo zerbitzu zentronen bat Arabako Lurralde Historikoaren barruan daukatenek eta eratu zirenetik eskaera aurkeztzen duten egunera arte gutxienez urtebeteko antzintasuna dutenek.

b) Trakzio erakundeek, Arabako ETE-ei nazioartekotze prozesuan laguntzeko proiektuen buru direnek. Trakzio erakundeek ere Araban izan behar dituzte sozietatearen egoitza eta zerga egoitza. Hala ere, betebeharrak horretatik kanpo geratuko dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileak; horientzat nahikoa izango da ekoizpen edo zerbitzu zentro bat Araban izatea.

c) Irabazteko xederik gabeko erakundeek, honako baldintza hauek betetzen badituzte: Arabako ekoizpen ehunaren erakusgarri badira; egiaztatzeko moduko esperientzia badute enpresen nazioarteko sustapenean; alor horretan gutxienez hiru urteko ibilbidea badute; sozietatearen egoitza eta zerga egoitza Araban badituzte; eta aurreko puntuan aipatutako onuradunak ez badira.

3.2. Deialdi honen ondorioetarako, enpresa bat ETE izango da 250 soldatapeko baino gutxiago badauka eta haren urteko negozio bolumena 50 milioi eurotik gorakoa ez bada edo urteko balantzea 43 milioi eurotik gorakoa ez bada.

3.3. Trakzio erakundetzat joko dira Arabako ETE-ei haien nazioartekotze prozesuan laguntzeko herrialde edo zona ekonomiko jakin batean lankidetzat proiektuak zuzentzen dituzten erakunde hauek: enpresa handiak, kanpo sare sendoa duten enpresa nazioartekotuak, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera eta Zientzia eta Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileak, baldin nazioartekotzera bideratutako ekintzak badituzte.

3.4. Proiektuan parte hartzen duten enpresen artean lotura izanez gero, enpresa bakarra hautatuko da entitate onuradun gisa.

3.5. Ezin dira onuradun izan sozietate publikoak, ez eta erakunde administrazioarenak diren berezko nortasun juridikodun erakundeak ere.

3.6. Erakunde onuradunek egunean egon beharko dute zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoetan, 58/2004 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera hura frogatzetik salbuetsita egon ezean, bai dirulaguntza emateko ebazpenaren, bai hura ordaintzeko unearen aurretik. Erakunde onuradunak Gizarte Segurantzako inolako erregimenetan kotizazio kontuaren koderik esleituta ez badu, enpresako bazkide guztiek Gizarte Segurantzarekin egunean egon beharko dute.

#### **4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak**

4.1. Diruz lagundu ahalko dira nazioartekotzerako enpresen arteko lankidetzat proiektuak abian jartzeko inolako zalantzarik gabe lagungarriak diren jardunak, hala nola beste herrialde batzuetako enpresekiko lankidetzat teknikoak, komertzialak, finantzarioak edo bestelakoak, bai eta Arabako enpresen arteko lankidetzat ere, kanpora batera irteteko xedez egingo dena.

Nazioartekotzerako enpresen arteko lankidetzat joko da Arabako gutxienez bi ETEk batera eta modu koordinatuan parte hartzea nazioartekotze proiektu berean.

Honako hauek lagundu ahal izango dira diruz:

– Arabako ETE-en arteko lankidetzat prozesuak, nazioarteko bihurtzea helburu dutenak (hasierako fasea zein merkatu berrietara sartzeari).

– Enpresen arteko lankidetzat ekintzak, kanpo merkatuetara sartzeko estrategiatzat hartuta.

– Honako hauek egitea: nazioartekotze plan estrategikoak, merkatu azterketak, bideragarritasun tekniko-ekonomikoa, marketina eta abar.

– Kanpoko aholkularitza ematea gai hauetan: legeak, zuzenbidea, zergak, finantzak eta abar.

– Produktua xedezko merkatuan erregistratzea: homologazioak eta egiaztapenak.

– Nazioarteko egitura plataformetara sartzeari.

– Merkatuak aztertzea bidaiak.

- Azterketa misioak eta/edo misio komertzialak.
- Aliatu edo laguntzaile izan daitezkeenen eta Arabako enpresen nazioarteko bazkideen alderantzizko misioak.
- Bisitak egitea bezero izan daitezkeenei edo pertsona edo erakunde laguntzaileei.
- Produktuen nazioarteko sustapenak edo erakustaldiak.
- Nazioarteko azoketara joatea.
- Oro har, Arabako ETE-ei kanpora irekitzen lagunduko dieten ekintzak.

#### 4.2. Nazioarteko lehiaketa edo lizitazio prozesuetara sartzeko proiektuak.

Atal honetan, diruz lagundu ahaliko dira soilik aurretiazko identifikazio eta partzuergoak eratzeko jarduerak, nazioarteko lehiaketa edo lizitazioetara sartzeko beharrezko direnak.

4.3. Osagarri gisa, eta deialdiaren aurrekontu osoaren ehuneko 30eko erreferentzia orientagarriarekin, ETE-en bakarkako nazioartekotze proiektuen kanpo gastuetarako dirulaguntzak eman ahaliko dira baldin eta, jardunen izaera eta kalitatea ikusita, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak egokitzat jotzen badu eta 60 puntu edo gehiago lortzen badute.

### 5. artikulua. Proiektuetako diruz lagundu daitezkeen gastuak

5.1. Diruz lagundu ahal izango dira 4. artikuluan aipatutako jarduerak gauzatzeko kanpoko profesionalekin edo nazioartekotzean espezializatutako zerbitzu profesionalak eskaintzen dituzten erakunde edo enpresekin kontratatutako lanak, bai eta proiektua garatzeak dakartzan beste gastu batzuk ere; diruz lagun daitekeen gastua gehienez ere 30.000,00 euro izango da (muga hori ez zaie ezarriko irabazteko xederik gabeko erakundeei). Justifikatzeko unean, jarduketaren txostena aurkeztu beharko da, edo, hala badagokio, kontratatutako eta diruz lagundutako txostenak aurkeztu ahal izango dira.

5.2. Bidaia eta ostatu gastuak, mantenu gastuak izan ezik.

5.3. Nazioarteko azoketara joatea eta produktuen erakustaldiak edo sustapenak, biak atzerrian.

5.4. Komunikazio gastuak: proiektuan parte hartzen duen enpresa bakoitzeko gehienez ere 15.000,00 euroko gastua lagundu ahal izango da diruz, eta proiektuko, gehienez ere, 30.000,00 euro.

- Webguneak egokitzea.
- Publizitatea: publizitatea sortu eta txertatzea atzerriko komunikabideetan eta Interneten.
- Promoziorako materiala: katalogoak, liburuxkak, bideoak eta abar.
- Itzulpen zerbitzua.

5.5. Ibilgailuak eta taxiak alokatzeko gastuak.

5.6. Inbertsio gastuak: 20.000,00 eurokoa da proiektu bakoitzeko gehienez diruz lagundu daitezkeen gastua:

- Prototipoak garatzea, aldaketak egitea edo produktuak egokitzea nazioarteko merkatu berrietara zabaltzeko.
- Produktuaren erregistroa xedezko merkatuan: homologazioak, egiaztapenak eta nazioarteko marka.
- Lankidetzat proiekturako behar diren software erosketak edo plataforma teknologikoen garapenak.

5.7. Barneko gastuak: diruz lagundu ahal izango dira, proiektuaren eta jardueraren izaera dela-eta Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak bidezkotzat jotzen badu, proiektuan parte hartzen duten langileen soldatak, Gizarte Segurantzari egin beharreko enpresa kotizazioak barne, hain zuzen proiektuari zuzenean lotuta daudenak eta bidaiak direla eta kanpoan dauden egunei dagozkienak. Egun eta pertsonako gehienez ere 200,00 euroko kostua lagunduko da diruz proiektu bakoitzeko, eta gehienez ere 6.000,00 euro pertsonako eta 18.000,00 euro irabazteko xederik gabeko erakundeko edo enpresako.

Horrez gain, trakzio erakundeek zuzendutako proiektuetan, erakunde horietako langileen soldatak ere onartuko dira, Gizarte Segurantzari egin beharreko enpresa kotizazioak barne, onetsitako proiektua diseinatzen, koordinatzen eta abian jartzen emandako denboragatik. Barneko gastu hori, gehienez ere, onartutako kanpoko gastuaren ehuneko 20 izango da.

Nazioarteko lehiaketa edo lizitazio prozesuetara sartzeko lanei dagokienez, diruz lagundu ahal izango dira partzuergoak identifikatu eta eratzeko lanak kudeatuko dituzten langileen gastuak, urtean gehienez ere 5.000,00 euro pertsonako eta 10.000,00 euro proiektuko.

5.8. Eskatzaile bakoitzak bi proiektu desberdin aurkeztu ahalko ditu gehienez ere. Muga hori ez zaie aplikatuko irabazteko xederik gabeko erakundeei.

5.9. Oro har, ez dira diruz lagunduko:

- Erakunde kontratatzailearen eta kontratatuaren artean loturak daudenean izandako gastuak.
- Proiektuan parte hartzen duten enpresen artean izandako gastuak.
- Aktibo finkoetako inbertsioak, 5.6. atalean aipatutakoak izan ezik.
- Erakunde onuradunetako langileen otordu, telefono, kilometro sari, hoteleko aparteko eta abarren gastuak.
- Material suntsikor inbentariaezinen gastuak.
- Atzerriko prestakuntza ekintza, mintegi edo biltzarretara joatea.
- Kontsumoetatik eratorritako gastuak. Esate baterako: elektrizitatea, ura, gasa, mezularitza, posta, garbiketa, telefona, zaintza, bulego materiala eta antzekoak.
- Nazioarteko patenteen erregistroa.
- Enpresen erosketak.
- Sustapen materialaren inprimatze gastuak.
- Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.
- Oro har, ez da onartuko 100,00 eurotik (BEZik gabe) beherako gastuen egiaztagiririk, salbu eta, ekintza edo gastu mota oso espezifikoa delako, zenbatekoa eta kontzeptua behar bezala justifikatuta daudela jotzen bada, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren iritziz.
- Dirulaguntzaren xede den proiektuarekin zalantzarik gabe lotu ezin diren gastu guztiak.

5.10. Beste herrialde batzuetako fakturekin batera haien itzulpena aurkeztu behar da, ingelesez daudenetan izan ezik.

5.11. Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren ustez, proiektu jakin batean jardunen bat badago nazioartekotze proiektutik eratorritako lehiakortasunaren hobekuntzari behar besteko ekarpenik egiten ez diona, hura bazter utz daiteke esleitu beharreko dirulaguntza kalkulatzeko.

5.12. Baimenduta dago dirulaguntza jaso dezaketen kanpoko gastuen ehuneko ehuneraino azpikontratatzea, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 27. artikuluan xedatutako baldintzak betez.

**6. artikulua. Aplikazio eremua eta proiektuak gauzatzeko epea**

6.1. Erakunde onuradunek Arabako Lurralde Historikoaren onurarako aplikatu beharko dituzte dirulaguntzarekin egindako azterlan edo proiektuen ondorioak.

6.2. Proiektuek eta/edo gastuek dirulaguntza jaso dezakete baldin eta laguntza eskaeraren ondoren garatzen badira eta 2023ko irailaren 15a baino lehen gauzatzen badira (egun hori barne).

6.3. Deskargu ekonomikoan egozten diren fakturen data, edo, hala badagokio, egindako ordainketaren data, jardunak egiteko epearen barruan egon behar da.

**7. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak**

7.1 Hona erabaki honetan aurreikusten diren dirulaguntzen banaketa eta ehunekoak:

a) Arabako bi enpresa edo gehiagoren parte hartzea duen nazioarteko lankidetzaren proiektu batean dauden ETEak, edo trakzio erakunde batek zuzendutako proiektu batean daudenak: dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren ehuneko 60.

b) Nazioarteko lankidetzaren proiektu bat zuzentzen duten trakzio erakundeak: dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren ehuneko 80. Trakzio erakundearen gastu diruz lagungarria —irabazteko xederik gabeko erakundeak salbu— ezingo da izan diruz lagun daitekeen aurrekontu osoaren ehuneko 50 baino gehiago.

c) Enpresen nazioarteko sustapenean egiaztatzeko moduko esperientzia duten irabazteko xederik gabeko erakundeak: dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren ehuneko 60.

d) Nazioarteko lehiaketa edo lizitazio prozesuetara sartzeko proiektuak: dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren ehuneko 60.

e) Nazioartekotzeko bakarkako proiekturen bat duten ETEak: dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren ehuneko 40.

7.2. Dirulaguntza hauek emango dira, gehienez ere:

a) Arabako ETE-en lankidetzaren proiektuetarako edo enpresen nazioarteko sustapenean egiaztatzeko moduko esperientzia duten irabazteko xederik gabeko erakundearen proiektuetarako: 60.000,00 euro proiektu eta deialdiko.

b) Trakzio erakundea buru duten lankidetzaren proiektuetarako: 120.000,00 euro proiektu eta deialdiko.

c) Nazioarteko lehiaketa edo lizitazio proiektuetarako: 10.000,00 euro proiektu eta deialdiko.

d) ETE-en bakarkako proiektuetarako: 30.000,00 euro proiektu eta deialdiko.

7.3. Proiektuak dirulaguntza jaso ahal izateko, dirulaguntzan onetsi behar den zenbatekoak gutxienez 1.500,00 eurokoa izan beharko du.

7.4. Trakzio enpresek zuzendutako proiektuetan, parte hartzen duten erakundeek egindako akordio bat aurkeztu beharko da, eta han egon beharko dira zehaztuta enpresetako bakoitzaren ekarpenak eta parte hartzeko baldintzak.

**8. artikulua. Prozedura bideratzeko eskumena duten organoak**

8.1. Prozedura Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak bideratuko du.

8.2. Balioespen Batzordea honela eratuta egongo da:

Batzordeburua: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren zuzendaria edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Kideak: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona.

Idazkaria: Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuko teknikari bat.

### **9. artikulua. Eskerak aurkezteko epea eta modua**

9.1. Eskabideak aurkezteko epea deialdia onartu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2022ko ekainaren 20an bukatuko da, 14:00etan.

9.2. Eskerak bakar-bakarrak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa <https://e-s.araba.eus>; horretarako, eskatzaileek sartzeko ziurtagiri elektronikoa izan beharko dute alde aurretik. Egoitza elektronikora sartzeko bideak zeintzuk diren eta entitate ziurtatzaile batek jaulkitako ziurtagiri elektronikoa non eskatu behar den jakiteko, jo "Ezagutu egoitza – Nola sartu" izeneko atalera.

Arabako Foru Aldundiaren webgune instituzionalean <https://web.araba.eus/eu/ekonomia-ren-garapena/laguntzak> eskuragarri dagoen informazioan, eskaera ongi aurkezteko jarraitu beharreko argibideak zehazten dira.

Eskaera egiten duen enpresa edo erakundeak eskatzen zaion informazioa eman beharko du AFAREN egoitza elektronikoa dagoen formularioan. Enpresentzako (lankidetzeta-proiektua edo ETEen banakako proiektua) edo irabazteko xederik gabeko erakundeentzako ereduak aukeratu dezake.

Halaber, formulario horren bidez proiektuaren inguruko informazioa eman beharko du. Honako hauek hartzen ditu barnean:

- Proiektuaren izena.
- Proiektuaren laburpena.
- Elkarlanean parte hartzen duten enpresak zeintzuk diren.
- Nazioartekotzeko estrategia eta xede merkatua.
- Proiektuaren kalitatea eta iraunkortasuna.
- Ingurunean duen eragina.
- Informazio ekonomikoa.
- Proiekturako beste laguntza batzuk.

Horrez gain, Arabako Foru Aldundiaren web-orri instituzionalean eskuragarri jarriko den .pdf inprimakia erantsi beharko da parte hartzen duen enpresa bakoitzak elektronikoki sinatuta. Inprimaki horrek honako hauek biltzen ditu:

- Parte hartzen duen enpresaren datuak.
- ETE-en karakterizazioa.
- Enpresaren deskribapena.
- Minimis laguntzak.
- Ingurumena
- Berdintasuna eta kontziliazioa
- Euskara
- Gizarte erantzukizun korporatiboa
- Kudeaketa aurreratua.
- Enpresan duen eragina.



- Barneko eta kanpoko gastuen taulak.
- Erantzukizunpeko aitortpena.

Eta informazio ekonomikoarekin loturiko agiri hauek ere erantsi beharko ditu:

- 10.000,00 eurotik gorako lana egingo duen kanpoko profesionalaren eskaintzaren fotokopia (proforma faktura edo kanpoko aurrekontua).

Enpresa arteko lankidetzak proiektuak baldin badira, erakunde eskatzaileak edo enpresa liderak, hala badagokio, enpresa bakoitzari dagokion informazioa bildu beharko du .pdf inprimaki beraren bidez. Proiektuan parte hartzen duen enpresa bakoitzak dokumentu hau elektronikoki sinatu beharko du eta eskabidearekin batera aurkeztu beharreko dokumentazio gisa erantsiko da.

9.3. Erakunde eskatzaileak baliozkotasuna emango die Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak edo eta Zerbitzuak laguntzaren eskaera orrian identifikatutako harremanetarako pertsonaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiei.

9.4. Dirulaguntza eskaera aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileak eta parte hartzen duen enpresa bakoitzak baimena ematea izapideak egiten dituen organoak zuzenean eskuratu ahal izateko 3. artikuluan adierazten diren inguruabarren egiaztatzeak, eta bereziki Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko egoerari buruzkoak. Nolanahi ere, egoitza Arabako Lurralde Historikoan ez daukaten erakundeek beraiek aurkeztu beharko dute Ogasunarekiko egoerari buruzko ziurtagiria.

#### **10. artikulua. Balioespen irizpideak**

Aurkeztutako eskabideak ondoren aipatzen diren irizpide eta puntuazioaren arabera balioetsiko dira, eta gutxienez 50 puntu beharko dira, diruz lagunduko badira.

a) Proiektuak nazioartekotzeko duen ahalmena (0-40 puntu).

– Enpresen arteko lankidetzak egituraren diseinuaren kalitatea, eta egitura horretan parte hartuko duten eragileen kopurua eta tipologia (ez zaie aplikatuko 4.3. artikuluan adierazitako proiektuei).

– Merkatuen dibertsifikazioan eta jardueran izango duen eragina: herrialdeen zailtasunak, negozio aukerak merkatu-sektoreetan, espezializazioa.

– Nola laguntzen dien negozio estrategiei eta haiek bezero, merkatu, lehiatzaile, produktu eta abarrekiko behar duten birkokatze estrategikoari.

– Parte hartzen duten erakundeetara ekarriko duen negozio eta enplegu bolumenaren gehitzea.

b) Jardueren inpaktua ingurunean (0-25 puntu).

– Lehiakortasuna areagotzeko egindako ekarpena.

– Gaitasun traktorea eta hazteko eta finkatzeko ahalmena.

– Euskadiko espezializazio adimenduen estrategiarekiko inplikazioa: Industria 4.0, Energia, Bio-osasuna.

– Ekarpena lurralde orekari.

c) Proiektuaren kalitatea eta iraunkortasuna: nazioartekotze-proiektuaren sendotasuna, etorkizunera begira jarraitzeko potentziala eta enpresen konpromisoa (0-25 puntu).

d) Balioesten diren beste alderdi batzuk (0-10 puntu).

– Eskabidearen definizio maila, edukia eta kalitatea.

– Erakunde eskatzaileak ingurumenarekiko, genero berdintasunarekiko, lan kontziliazioarekiko, euskararen erabilerarekiko eta gizarte erantzukizun korporatiboarekiko duen inplikazioa.

– Kudeaketa aurreratuko jardunbideak.

**11. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena**

11.1. Organo eskudunak, Balioespen Batzordeak proposatuta, behar diren ebazpenak emango ditu; ebazpen horiek, ahal dela, baliabide elektronikoen bitartez jakinaraziko dira, eta ezinezkoa bada, gutun ziurtatuaren bidez, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41. eta 42. artikuluetan xedatutakoa aintzat hartuz.

11.2. Jakinarazitako ebazpen horrek administrazio bidea agortzen du, baina aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakiok Foru Gobernu Kontseiluari, egintza hau jakinarazi ondorengo egunean hasi eta hilabete igaro baino lehen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua xedatzen duenaren arabera. Bestela, zuzenean aurkatu daiteke administrazioarekiko auzietarako dagokion jurisdikzioan, egintza hau jakinarazi ondorengo egunean hasi eta bi hilabete igaro baino lehen.

**12. artikulua. Emandako laguntza onartzea**

12.1. Erakunde onuradunak onarpena aurkeztu behar du edo, hala behar denean, uko egitea egoitza elektronikoa, dirulaguntza ematearen jakinarazpena jaso ondorengo hamar egun baldioduneko epean.

12.2. Baldin prozeduran zehar onuradunen batek dirulaguntzari uko egiten badio, puntuazio hurrenkerako hurrengo proiektu edo jardunei dirulaguntza adjudikatzea erabaki ahalko du dirulaguntza ematen duen organoak, beste deialdi baten premiarik gabe, baldin eta hala egin badaiteke eta onuradunak uko egiteagatik nahikoa kreditu eragin bada, ezetsitako eskaeraren bati, behintzat, aurre egiteko.

**13. artikulua. Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea**

13.1. Onetsitako dirulaguntzak ebazpenean nahiz ondorengo puntuetan xedatutako betekizun eta baldintza guztiak bete ondoren likidatuko dira.

13.2. Dirulaguntzaren lehenengo zatia, hau da, onartutako dirulaguntzaren ehuneko 50, emakidaren ebazpena onetsitakoan ordainduko da, justifikatu beharreko aurrerakin gisa. Idazki bat aurkeztu beharko da, erakundeak eman zaion dirulaguntza onartzen duela adierazten duena, 12. artikuluan ezarritakoaren arabera.

13.3. Justifikatu beharreko aurrerakin moduan egingo da dirulaguntzaren ordainketa, eta ez da ezarriko emandako funtsen berme araubiderik.

13.4. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntzaren gainerako ehuneko 50a ordain dezan eta lehenengo ordainketa justifikatuz eman dezan, onuradunak agiri hauek aurkeztu beharko ditu 2023ko urriaren 27ra arteko epean (egun hori barne), egoitza elektronikoen bidez:

a) Egindako jarduera guztien azken memoria, hauek zehaztuz: zer mailatan lortu diren helburuak, asebetetze maila, jardueren kronologia eta diruz lagundutako kontzeptuetan izan diren desbideratzeak.

b) Diruz lagundutako proiektuko gastuen eta diru sarreraren taula eta/edo finantzaketa taula.

c) Fakturak eta merkataritzako trafikiko juridikoan antzeko balio frogagarria edo antzeko administrazio eraginkortasuna duten bestelako agiriak.

d) Barruko gastuen taula, non agertuko baitira proiektuari atxikitako langileen izenak, NANak, kostuak eta PFEZaren kontura egindako atxikpenak (bidaiako egunekoak), eta hitzarmenaren arabera lan egindako urteko guztizko ordu kopurua.

e) Bidaia gasturik badago, bidaia egin duten pertsonen zerrenda eta ontziratze txartelen kopia, halakorik egon bada.

f) Eskaintza hirukoitza eta arrazoitzeko txostena hautatutako eskaintza ekonomikoki onena ez bada (izandako benetako kanpoko gastua 15.000,00 euroko mugaraino iritsi edo hura gainditzen badu eta eskabidean aurkeztu ez bada).

g) Erantzukizunpeko adierazpena, Arabako Foru Aldundiaren webgunean <https://web.araba.eus/eu/ekonomiaren-garapena/laguntzak> agertzen den ereduaren arabera, eta adierazi beharko da erantsitako fitxategiak jatorrizkoen benetako irudiak direla, jatorrizko dokumentuak eskaera egin duen erakundearen esku daudela eta Arabako Foru Aldundiaren esku jarriko direla, hark hala eskatuz gero.

13.5. Egindako gastuen ordainketaren egiaztagiria, tipologiaren arabera.

a) Kanpoko gastuaren kasuan, fakturen ordainketa justifikatzeko, dagokion banku transferentzia edo merkataritzako trafiko juridikoan pareko froga balioa duen beste agiriren bat erabiliko da, baldin eta pertsona ordaintzailea eta onuraduna, zenbatekoa, ordaintzeko data eta kontzeptua zehazten badira.

b) Proiektuarekin lotura zuzena duen barneko gastuaren kasuan, bidaiak direla eta kanpoan dauden egunei dagozkienak, nominak eta Gizarte Segurantzarako kotizazioak ordaindu izana eta ordutegi kostua frogatu beharko dira, hauek erabiliz:

– Urteko lanaldia, aplikatuko den lan hitzarmen kolektiboarekin bat etorritz.

– Dagozkion nominak eta bankuko laburpenak edo transferentzia telematikoen aginduak. Ordainketa bidalketa bidez egiten bada eta banku laburpenean ez badu kasuan kasuko langilearen izena zehazten, erakundearen gerentziaren idazki bat erantsiko da, non adieraziko den langile horren nominaren ordainketa kasuan kasuko bidalketan egin dela.

– Kotizazioen likidazioaren zerrenda (RLC) (lehenTC1), gizarte segurantzaren aplikazioaren bitartez sortua, eta ordainketaren banku laburpena.

– Langileen izenen zerrenda (RNT) (lehenTC2), gizarte segurantzaren aplikazioaren bitartez sortua.

13.6. Profesionalek egindako fakturen eta barruko gastuen kasuan, erakunde onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, justifikatu beharreko ordainketa egin beharra onartuko da eta Arabako Foru Aldundiaren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta bidezko justifikazio txostena egitea. Baldin eta, dirulaguntza ordaindu eta gero, egiaztatzen bada ez direla sartu egin beharreko atxikipenak, dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko eskatuko da.

13.7. Frogagiriak egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dira. Kasu horretan, zehaztutako agiriez gain, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko da, Arabako Foru Aldundiaren erakunde webean <https://web.araba.eus/eu/ekonomiaren-garapena/laguntzak> dagoen ereduaren arabera, espedienteari eransten zaizkion fitxategiak jatorrizkoen benetako irudia direla, erakunde eskatzaileak dauzkala eta eskatzen zaionean Arabako Foru Aldundiaren eskura jarriko dituela adieraziz.

13.8. Ordainketak arintzeko, unean unerako jarritako epe mugak baino lehenago aurkeztu ahal izango dira eskatutako agiriak.

13.9. Epe horiek igaro eta dirulaguntza ordaintzeko betebeharra onartzeko zein dirulaguntza ordaintzeko aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ez badira, edo agiriren bat falta bada, dirulaguntza zio horregatik murriztu edo baliogabe utziko da, dagokionaren arabera. Salbuespenez, ordaintzeko betebeharra onartzeko agiriak epez kanpo onartu ahal izango dira baldin mugaegunetik aurrera hamar egun naturaleko epean aurkezten badira, eta azkenean justifikatutako zenbatekoaren ehuneko 20ko murrizketa ezarriko da dirulaguntzan.

13.10. Ordainagiriak onetsitako gastu osoaren zenbatekora iristen ez badira, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzioan berregokituko da, eta dagokion kopurua baliogabe utziko da.

13.11. Ordaindu behar den dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa, hura onestean bezala, 1.500,00 eurokoa da.

13.12. Dirulaguntza jaso duten jardueri eragiten dien gorabehera edo aldaketa oro jakinaraziko zaio Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuari, eta behar diren erabakiak hartu eta erakunde onuradunari jakinaraziko dizkio berak. Hortaz, onetsitako guztirako gastua muga delarik, aldaketak onartu ahal izango dira hasiera batean diruz lagundutako ekintzetan eta horiei dagozkien diru zenbatekoetan, haietakoren bat gauzatu ez izana gorabehera.

Aldaketa horiek Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuaren oniritzia beharko dute.

Aldaketak funtsezkoak badira, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak onetsi beharko ditu.

13.13. Erakunde onuradunek gastuen agiriak aurkeztu ondoren, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuak in situ egin ahalko ditu bisitak diruz lagundutako jarduerak egiaztatzeko.

#### **14. artikulua. Proiektuen jarraipen teknikoa**

14.1. Dirulaguntza onartzeko idazkian adierazitako proiektuaren jarraipena egiteko helburuarekin, erakunde onuraduna Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuarekin bilduko da proiektuari ekin eta hiru hilabetera, baldin zerbitzu horrek eskatzen badu.

14.2. Orobat, onetsitako proiektuen jarraipena egingo dute Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuko teknikariek, eta horretarako, behar izanez gero, onetsitako proiektuari loturik kanpoan egingo diren misio komertzialetara edo bestelako jardueretara joango dira.

#### **15. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna**

Oinarri arautzaileak onesten dituen Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuak hamalagarren oinarrian ezarritakoa aplikatzeko izateaz gain, diruz lagundutako jardunek jaso ditzaketen gainerako laguntzak, edozein dela ere haien izaera eta ematen dituen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira deialdi honetatik datozenekin, diruz lagundutako gastuaren ehuneko 80raino iritsi arte. Salbuespen izango dira Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzarenak ez diren Arabako Foru Aldundiaren beste administrazio unitate batzuek emandakoak, bateraezinak izango baitira.

#### **16. artikulua. Garapena**

Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Saileko foru diputatuari eskumena ematen zaio deialdi hau garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro emateko.

#### **17. artikulua. Publizitatea eta komunikazioa**

Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardunak zabaltzeko ekintzarik eginez gero, horretarako sortzen diren material eta euskarrietan Arabako Foru Aldundiak emandako finantzaketa aipatu beharko da, erakunde horrek bere irudi korporatiboa dela-eta ezarritako oharretara egokituta.

#### **18. artikulua. Eskaerak egokitzea**

Deialdi honetan araututako dirulaguntzei heltzerik ez duten aurkeztutako eskabideak, kasuan kasu, Ekonomia Garapenaren eta Berrikuntzaren Zuzendaritzak kudeatutako beste laguntza lerro batzuetara eraman ahalko dira ofizioz.

### **19. artikulua. Araubide juridikoa**

Deialdi honetan ezarritako prozedura Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 10eko 54/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinarri arautzaileetan ezarritakoaren mendean dago, hauetan xedatutakoaren aurka ez badago: Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, nahiz dirulaguntzei buruzko ondorengo gainerako xedapenak.